

## Tiro baten oihartzuna

Hitz haiek gorputzaren barneraino sartu zitzaizkion, bat-batean, entzuten duzun eran bularra zeharkatzen dizun balak bezala, bihotzaren sakoneraino sartuz. Zorigaitza ekarriko zioten hots haiekin tiro egin zioten: hil egin da.

Buruko horma guztiak kolpatuz esaldia, bere burua hormaren kontra zuen bitartean, negar betean, mugikorra lurrean pantaila hautsirik, eskutik ihes egin zion telefonoaren bestaldeko ahotsak berria eman zionean. Bai? Bai? Hor zaude? Baina iada ez zuen entzuten. Zure alaba istripu batean hil da. Besterik ez. Erantzuteko indarrik ez. Zutik egotekorik ere ez. Belauniko, baldosa hotzen gainean. Hil da.

Istripua.

Alaba.

Hil da.

Etengabe buruan, oihartzun amaigabea. Isildu ezin den maiukada kolpe-eta-kolpe. Egun hartan alaba ez zen lanetik itzuliko, ez ama lanera joango. Bata bestea baino biziago. Baina ez bizirik.

Hil egin da: hil da.

Gerora pasa zen izatera hilda dago.

Bazegoen, -goizero bezala jogurt bat eta kiwi bat gosaldutik zituen-, eta iada ez dago -eta inork jango ez dituen kiwiak zaborretara bota beharke ditu. Hilda dago. Bere falta somatzen du ekintza bakoitzean, nahiz eta hilabeteak pasa diren notizia eman ziotenetik. Behin batean alde egin zuen eta ez da itzuliko.

Korrika batean joan ohi zen, bide luzea lantokira heltzeko eta denbora gutxi. Errepikatzen dio bere buruari: joan ohi zen. Eta inolaz ere ez da bueltan izango. Ziurtasunez jakitea ez dela itzuliko, ez duzula berriz alaba alboan izango, ezin izango diozula inoiz maite zaitut esan,

besarkatu,

estutu,

bere beroa sentitu,

irriak eta malkoak,

bere ondoan egon:

hori egiten zaio gogorrena.

Bukatu dela onartzea.

Hilda dago. Alaba. Istripua. Alaba.

Zertarako bizi den ere zalantzan jartzen du, hil zenez geroztik konturatu da zein absurdoa den bizitza, zein absurdoa egunerokoa, zein absurdoa mina. Baina hala ere negarrez hasten da kiwi bat ikusten duen bakoitzean, edo bere alaba gogorarazten dion milaka gauzetako bat ikusten duen bakoitzean. Halakoetan, burutik ihes egin ezin duten hitzek bihotza kolpatzen diote, gogor: hilda dago, hil egin zen.

Bizitzari mesfidati begiratzten dio, denak zentzua galdu balu bezala. Eta guztia inoiz baino ergelagoa iruditzen zaion arren egunero esnatu behar du, dutxatu, zapatak jarri, lanera joan eta deskantsuan erre, bertatik irtetzean etxera itzultzeko, alabaren hutsa malkoz betetzera.

Ondoan inor ez kontsolatzeko.

Baina berdin du, aurrera egin beharra dago, esaten dio bere buruari. Poliki-poliki negarrari eustea lortu du, orain kotxea har dezake ilantuka hasi gabe. Hil zen. Hozten hasi da dena, orain pentsamenduek gainezka egiten diote, ez horrenbeste malkoek.

Zertarako joan zen goiz hartan korrika.

Zertarako.

Zergatik joan zen goiz hartan korrika.

Zergatik.

Norentzat joan zen goiz hartan korrika.

Norentzat.

Norentzat bizi eta hiltzen gara.

Inozoegia iruditzen zaio "geure buruarentzat" erantzutea. Hil zen. Zergatik. Zertarako bizi, zertarako hil.

Galdera zurrunbiloa.

Erantzunak lotsati agertzen dira, bakoitza bere aldetik, zelai zabalean satorrak burua ateratzen duenean bezalaxe. Baina irteten dira, lur lehorrean aztarka eginez, astinduz, beldurti bada ere.

Hil zen. Alaba. Istripua. Alaba.

Pentsatzen hasi da agian ez zela istripua izan, ez dagoela halako istripurik: albo-kalte bat izan zen. Lotsati esaten dio bere buruari halako heriotzak albo-kalteak direla. Zaila egiten zaio halako ideiei buruan lekua egitea, ez dago toki askorik, beteegia dago ezer sartzeko, baina poliki-poliki ari dira.

Hil egin zuen lanera joan behar izateak, korrika eta presaka.

Zaila egiten zaio halako ideiei buruan lekua egitea, beteegia dago ezer sartzeko, baina poliki-poliki ari dira, ari dira.

Hori eginarazten zionak hil zuen.

Zaila egiten zaio halako ideiei buruan lekua egitea, baina poliki-poliki ari dira, ari dira, ari dira.

Ezerezari iseka, osotasunak azpian hartu zuen.

Ari dira, ari dira, ari dira, ari dira, ari dira, ari dira, ari dira...

Orain okurritu zaio agian ez duela hirugarren pertsonako singularra erabili behar, aditz inpersonalak kanpora, eta zalantza nahas-mahasetik eta denborak ematen duen prespektibatik eta bihotzaren sakoneko zauritik jaio da baieztapen dudatia.

Ez zen hil: hil egin zuten.